



## ❖ KAROBI ELKARTEA Barrikotean izena emateko aukera

Karobi elkartean barrikotea egingo dute datorren otsailaren 12an. Izena emateko aukera badago oraindik, ostiralera bitartean. Barrikotea egiteko gutxienez 30 pertsonak eman behar dute izena, eta gehienez 60 lagun apuntatu daitezke. Menua sagardotegikoa izango da; honakoa: bakailao tortila, entrekota, gazta, intxaurrak eta menbrilloa, eta kafea. Prezioa: 18 euro. ||

## Hasi da Santa Ageda bezperako makilen ohiartzuna

Ostegunean da Santa Ageda bezpera, eta herriko taldeek egin dituzte errondarako entsaioak. Aurten, berrikuntza bezala, Ohitura Zaharrak abesbatzak kantu-paperak banatuko ditu Plaza Berrin, 19:45etan.

OTSAILAK 4, Santa Ageda bezpera, urteroko moduan ospatuko da aurten ere Hernanin. Herriko elkarte, abesbatza eta ikastetxeek entsaioak izan dituzte azken egunetan, eta dena prest dute ostegunerako.

Santa Ageda martiriaren omenezko eguna otsailaren 5a da, eta ohitura da, bezperan, otsailaren 4an, santaeskea egitea, herriko etxe eta tabernetan barrena. Ageda martiriaren istorioa kontatzen da kantuan, eta gutxi dira herri honetan, ohitura hori bezain zaharrak eta zabalduak daudenak.

### Talde bat baino gehiago

Ohitura Zaharrak abesbatzak urte asko eta asko daramazki Santa Ageda erronda egiten. Aurten ere, badute asmoa, eta 18:30etan aterako dira, Milagrosatik.

Ereñotzuko Ur-Mia elkarteak 16:30etan egin du zita, elkartean bertan.

Kantuz abesbatza 19:30etan aterako da Milagrosatik.

Goiz Eguzki abesbatza 17:00etan abiatuko da Sandiusterri egoitzaatik. ||



Santa Ageda bezpera, otsailaren 4an izango da urtero bezala.

Ohitura Zaharrak abesbatza: «taldeko batzuk, aurten 50 urte egingo dituzte santaeskean ateratzen direla. Ohitura gutxi dira herri honetan hainbeste urte iraun dutenak».

## Kantu-paperak eta makilak, Plaza Berrira inguratzen direnentzat

Santa Ageda erronda Plaza Berrira iristen denean, kantu-paperak eta makilak banatuko zaizkie inguratzen direnei, momentu batez, Santa Agedako kantak denen artean kantatzeko, 19.45ak aldean izango da.

Ohitura Zaharrak abesbatzak egin du aurten deialdi berezi hori. Taldeari 1993an jarri zioten izen hori, baina askoz lehenagotik ari ziren Santa Agedako erronda egiten: «taldeko batzuk, aurten 50 urte egingo dituzte santaeskean ateratzen direla. Ohitura gutxi dira herri honetan hainbeste urte iraun dutenak. Aurten zerbait berezia egin nahi izan dugu».

## Mus txapelketan jokatzeko aukera

Karobi elkarteko mus txapelketan parte hartu nahi duenak, oraindik badu aukera izena emateko, otsailaren 26ra bitarte. ||

## ❖ HIRIGINTZA BATZORDEA

### Hamabi puntu bihar hirigintza batzordean

Hirigintza Batzordea egingo dute bihar, udaletxeko Areto Nagusian (2garren solairua), eta hamabi puntu izango dituzte hizketagai. Tartean hitz egingo dute, Arau Subsidiarioek diotenari buruz, Pipuritako bidea zabaltzearen gainean. ||

## ❖ LANGILE

### Ostegunean, kontzentrazioa Urbietan kalean

Langile ikastolak protesta ekintzekin jarraitzen du, eta datorren ostegunean izango du hurrengoa, 17:00etan. Eusko Jaurilaritzak hartu berri duen erabakia salatzeke ari dira protestak egiten: Hemaniko DBHko ikastetxeak fusionatzeko erabakia salatzeke, alegia. Guraso, irakasle, eta langileak daude bertara deituta. ||

## Kaldereroen entsaioak gaur, bihar eta etzi

LARUNBATEAN aterako dira kaldereroak, *kriseilu*, *lapiko*, *pertzak* konpontzera, urtero bezala. Aurretik, entsaioak egingo dituzte, gaur, bihar eta etzi, Elur Txori elkartean, arratsaldeko 20:00etan; osteguneko izango da entsaio

nagusia, txarangarekin.

Horrez gain, larunbatean afaria egiten dute 19:30etan, kalera atera aurretik, eta apuntatu nahi duenak oraindik badauka aukera, elkartean jarrita dagoen zerrendan. Prezioa: 7 euro. ||



**RUFINO**  
SAGARDO NATURALA  
Irekita otsailaren 2tik  
martxoaren 27ra arte  
Asteartetik larunbatera gauz  
943 55 27 39  
JAVIER ANSORENA - Akarregi Baserria - HERNANI -

**HATOR**  
AHOLKULARITZA  
Fiskala, laborala  
eta Kontabilitatea.  
Gure zerbitzuak euskaraz  
jasotzeko aukera duzu...  
**MAPFRE ASEGURUAK**  
Kardaberaz 60, Hernani  
Tel: 943 55 43 12  
hator@euskalnet.net



**ALBERRO**  
SAGARDOTEGIA  
Tolare sagardotegia  
943 55 00 19

Sagardo naturala




Santa Barbara auzoa, 61  
HERNANI

☎ TELEFONAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
☩ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● **Gauz:** **Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA**  
**GAUR** Eguzkia eta hotza; giro argia gaur. Goizaldean izoztuta izango ditugu bazterrak, eta behelainoa izango dugu. Arratsaldean giro goxoa. Min.2° / Max.11°

**BIHAR** Paseatzeko eguraldi ederra izango da bihar ere. Goiz eguzkitsua eta hotza izango dugu. Eguna aurrera joan ahala lainotzen joango da. (euskaime)

## TXOTX DENBORALDIA



Larunbaterako 9 kilometroko ibilia prestatu dute, sagardotegiz sagardotegi egiteko.

# Sagar Martxa igandean, oinezkoentzat 9 km-ko ibilia

Txotx denboraldiko ekitaldiak igandean hasiko dira, Sagar Martxarekin. Goizeko 09:00etan abiatuko dira eta goiz-pasa egingo dute.

TXOTX denboraldia urtarriaren 17an hasi zen, eta Sagar Martxa izango da denboraldiko lehendabiziko ekitaldia. Oinezkoentzat ibilaldia prestatu du Hernaniko Udalak, Mendiriz Mendiren laguntzarekin; 9 kilometroko ibilia izango da, eta sagardotegiak eta sagastiak ikusiaz egingo dute.

**Goiz-pasa, hamaiketako eta guzti**  
Goizeko 09:00etan abiatuko dira ibiltariak, eta arratsaldeko 13:00ak aldean bueltatuko dira. Tartean, lekuri ederretan geldialdiak egingo dituzte, eta nola ez, hartuko dute denbora, *moko bat* egiteko ere. Hori bai, bokadiloa norbere kontura!

**Beste bederatzik ekitaldi, apirila bukaera bitarte**  
Txotx denboraldiko egitarauan, beste bederatzik ekitaldi ere ageri dira. Hurrengo ekitaldia otsailaren 27an izango da; *Zo-zongo perkushow* taldea ibiliko da kalean barrena. Eta martxoaren 6an Sagar lasterra herri-krossa; eta aurrerago, antzerkiak, kontzertuak... II

### Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

### Bateratze Prozesuari buruzko xehetasunak

Urtarrilaren 23an, larunbata, Hernaniko Kronikan argitaratutako *Hezkuntza ez da merkantzia* eskutitzean azaldu-tako hainbat daturen zehaztasun falta dela eta, honako puntu hauek argitu nahi ditugu:

Fusioa ez da egingo, testuak dioten bezala, DBHko 3 ikastetxeen artean; baizik eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztien artean, Insti-

tutua barne.  
«Beste bi zentro hauek matrikulazio galera garrantzitsuak dituzte. Ikasle askok Donostiara joateko erabakia hartzen dutelako». Eskutitzean azaltzen den baieztapen honen aurrean, zera esan behar dugu: Lehen Hezkuntza Elizatxon bukatu duten ikasleen %100ak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Elizatxon bertan egin du azken ikasturte honetan (2009-10). Gainera, DBH bukatzean gehienak Institutura joaten


dira Batxilergoa edo Ziklo Formatibo bat egitera.  
Azkenik, Elizatxon fusioaren aldeko erabakia ez dugu irakasleok, testuan jartzen duen bezala, bakarrik hartu. Baiezkoa eman zaio irakasle Klaustroan, OOGn (Eskola Kontseilua), baita Guraso Asanbladan ere. Bestetik gabe, agur bero bat.

**Elena García Gurrutxaga, Rosa Amunarriz Freire, eta Juan Lasarte Ormaetxea**  
Elizatzko BHI

## PELOTA

### Asteburuko emaitzak

Partidu asko izan zituzten Hernaniko pelotariek joan den asteburuan. Nagusietan, hiru partidu izan zituzten. Ojuelek eta Grajalek galdu egin zuten 16-22 Irurtzunen kontra. Oiagak eta San Sebastianek ere galdu egin zuten, 22-16 Ilunperen kontra. Otaegik eta Esnaolak 40-16 irabazi zuten Oiarperen kontra, trinketeen. Paletan, Lukasek eta Goenagak irabazi egin zuten, 30-23, Ane Lizeaga eta Eneritz Perezen kontra. Mirari Pagolak eta Nagore Zabalak 30-11 irabazi zuten Mariñelarena eta Urtasunen kontra. Tijerok eta Ugaldek 30-16 irabazi zieten Sanz eta Okarizi; eta Irazustabarrenak eta Mendizabalek 30-13 irabazi zieten Agirre eta Aristorenari. Jubeniletan, Santxo eta Aizpitarte erraz nagusitu ziren Arkuperen kontra, 22-3; eta Lopez eta Elorzak galdu egin zuten Ilunperen aurrean, 22-12. Kadeteetan azkenik, Urkizuk eta Murgiondok 22-8 irabazi zieten Intxurreri. Altunak eta Lujanbio Ilak 22-3 Añorgari; eta Urkizuk eta Murgiondok galdu egin zuten Intxurreren kontra, 22-8. II



### Atez ateko zalantzak argitzen

Errauste-planta jarrita zabortegia behar da?

Bai. Errauste-plantek toxikoak diren erraustu asko sortzen dute, eta horiek lurperatzeko zabortegi bereziak behar izaten dira.

Bidali zure galdera helbide honetara: [info@hernaniatezate.net](mailto:info@hernaniatezate.net)  
Galde-erantzun guztiak webgunean: [www.hernaniatezate.net](http://www.hernaniatezate.net)



### IRAGARKI MERKEAK

- Bigarren eskuko bazarra**, denetatik eta zentimo gutxigatik hasita, baita zilarra ere fabrikako prezioetan: **otsailaren 3tik aurrera (10:00etatik 13:00etara)**. Egun gutxi batzuetan bakarrik, **Karmelo Labaka 1 zenbakian**.
- Pisu baten bila nabil alokaituan** (abala), 2 logela. **Deitu: 608 671 844**.
- Pisua salgai Karabelen**. 60m2, 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefazioa badu. **Berritua. Deitu: 627 403 119**.
- Pianoa salgai**. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoak. Ongi zaindua. 2.500 euro. **Deitu: 629 763 041**.
- ETXEKO KONPONKETAK egiten dira**; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660**.
- Yolanda estetika zentrua**. Fotodepilazio berria, **hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan**, "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78**.
- Argia zentroa**. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diaforeoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**
- Iñigo Royo Masajista**. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

## GURE ARTEAN EUSKARAZ 2010

**9** lagunek euskara praktikatzeko zure laguntza behar dute.



**6** euskal hiztunen bila gailtza astean behin, ordubetez euskaraz... *pasiatzeko, kafetxo bat hartzeko edota, parranda egiteko*

Izena emateko deitu ezazu 943 33 27 99 telefonora edo pasa zaituz Larramendi 11n dugun bulegotik.